



OHARRA // Trafiko itxierak Santa Krutz jaietan

Santa Krutz jaietako egitarauaren barruan egingo diren ekitaldiak direla-eta, hainbat trafiko itxiera izango da herriko hainbat kaletan.

Aurten, proba gisa, barraketan eta kaleko salmenta-postuetan haurren segurtasuna bermatzeko, Txistoki bidean ibilgailuen zirkulazioa itxi egingo da apirilaren 30ean, 15:00etatik maiatzaren 4ko 22:00etara bitartean.

Era berean, Allurralde pasealekuko gunea egokituko da, Aita Larramendi ikastolaren parean, batez ere inguruko bizilagunek beren ibilgailuak aparkatzeko aukera izan dezaten jaiak ospatzen diren bitartean. Horretarako, baimen hori eskatu beharko dute udaletxean, eta baimen pertsonalizatua emango zaie baimendutako ibilgailu bakoitzerako.

Apirilaren 30an, asteazkenean, Zumeatarra Elkartearen danborrada egingo da Kale Berrian zehar arratsaldeko 19:45etik 20:15era bitartean. Zirkulazioa ez da etengo, baina auto-ilarak izango dira.

Maiatzaren 1ean, astelehenean, goizeko 10:00etatik 12:30ak arte, hainbat kirol proba egingo da. 10:30ean, ohiko Kros herrikoa; hau amaituta, eta 11:30ak aldera, Kros Txikia egingo da, txikienei eskainia; eta azkenik, 12:00etan ohiko txirindulari lasterketa 13:00ak bitarte, gutxi gorabehera.

18:30etik aurrera, unean uneko auto ilarak izan daitezke. Autobus zerbitzua, Bazkardon, Txistokin, Karrika 1-en eta Zumea plazako rotondan izango da Donostiara joan nahi dutenentzako eta Bazkardon, Zumea plazako rotondan, Karrika 2 eta Sorabillan Tolosara joan ahal izateko.

Hori dela eta, zirkulazioa 10:00etatik 11:30era bitartean itxi egingo da, Karrika kaletik Eskola kalera, eta 11:30etik 12:30era Txitibar plazako biribilgunetik Kale Berriko biribilguneraino (Laboral Kutxa). Bestalde, maiatzaren 1ean, krosa ospatzen ari den bitartean, hau da 10:30etatik 12:30era gutxi gorabehera, autobusak ezin izango du herrian sartu eta erabiltzaileak Fierro enpresaren parean hartuko ditu, Karrika 10 zenbakiaren parean.

Andoaingo herritar guztiei eskatzen zaie, adierazitako egun eta orduetan, ibilgailurik ez erabiltzeko eta antolaketan laguntzen duten boluntarioen eta udaltzainen jarraibideak betetzeko.

Zuen laguntza aldeztu aurretik eskertuz, Santa Krutz jai zoriontsuak izan ditzazuen opa dizuegu.

Andoain, 2025eko apirilak 29



**Andoaingo
Udala**



AVISO // Cortes de tráfico en las fiestas de Santakrutz

Debido a los actos que se llevan a cabo dentro del programa de fiestas de Santakrutz, habrá varios cierres de tráfico en varias calles de la localidad.

Este año, como prueba piloto, para garantizar la seguridad de las y los niños en las barracas y en los puestos de venta ambulante, Txistoki cerrará la circulación de vehículos desde las 15:00 horas del día 30 de abril hasta las 22:00 horas del 4 de mayo.

Asimismo, se acondicionará la zona del paseo de Allurralde, a la altura de la ikastola Aita Larramendi, para que sobre todo las y los vecinos de la zona puedan aparcar sus vehículos mientras celebran sus fiestas. Para ello deberán solicitar esta autorización en el Ayuntamiento y se les concederá una autorización personalizada para cada vehículo autorizado.

El miércoles 30 de abril se celebrará la tamborrada de la Sociedad Zumeatarra por Kaleberria entre las 19:45 y las 20:15 de la tarde. El tráfico no se verá interrumpido, aunque habrá retenciones.

El lunes 1 de mayo, de 10:00 a 12:30 de la mañana, se realizarán diversas pruebas deportivas. A las 10:30, el tradicional cross popular; finalizado éste, y sobre las 11:30, se celebrará el Cross Txiki, dedicado a las y los más pequeños; y por último, a las 12:00 la tradicional carrera ciclista hasta la 13:00 aproximadamente.

A partir de las 18:30 de la tarde, podría haber colas puntuales de coches. El servicio de autobús será en Bazkardo, Txistoki, Karrika 1 y rotonda de Zumea plaza para las personas que deseen ir a Donostia y en Bazkardo, rotonda de Zumea plaza, Karrika 2 y Sorabilla para poder ir a Tolosa.

Por ello, se cortará el tráfico entre las 10:00 y las 11:30, desde la calle Karrika a la Eskola kalea, y entre las 11:30 y las 12:30 desde la rotonda de la plaza Txitibar hasta la rotonda de Kale Berria (Laboral Kutxa). Por otro lado, el 1 de mayo, durante la celebración del cross, es decir, de 10:30 a 12:30 aproximadamente, el autobús no podrá entrar en la localidad y atenderá a las y los usuarios a la altura de la empresa Fierro, es decir, en el número Karrika 10.

Se solicita a todas y todos los vecinos de Andoaingo que, en los días y horas señalados, no utilicen sus vehículos y sigan las instrucciones de las personas voluntarias y policías locales que colaboran en la organización.

Agradeciendo de antemano vuestra colaboración, os deseamos que disfrutéis de unas felices fiestas de Santakrutz.

Andoaingo, 29 de abril de 2025